

Hedadura: 32'2Km2

Biztanlegoa: 676 biztanle

Jaiak:

- Herrikoak: Azaroaren 11an, San Martin.
- Bataiatzailearen martiria: Abuztuaren 29an, Erromeria Ernioko tontorrera.

- Aste Santua: Ostiral Santuan Gurutze bidea Emiora.

Izen hau hartzen duen herria Gipuzkoako barren aldean lekutzen da, Ernio-Gazume mendi-taldearen behe aldean. Izen bera duen ibaiak udalerrria ekitik mendebaldera zeharkatzen du, udalerrriaren antolaketan faktorerik nagusia izanik. Ibar eremuak mendigunea bi ataletan banatzen du.

Ibar aldean altuerarik handieneko tontorrek zutitzen dira, ibaiburuan zehar luzatzen den eta Bidaniako lurretan banerlatzen den arku bat osatuz. Ernioko katea gainera, berezko muga da Zestoa, Aia, Asteasu eta Bidania aurrean. Gailurrak 1000 metro baino zertxobait goraxeagoko altuera hartzen du. Behe aldean Zelatumgo igarogunea urratzen da, bertatik Iturriotz aldera menditalde hau zeharkatzen duen bidea igarotzen delarik. Bi gune hauen arteko bidea hainbat testigantza prehistorikok markatzen dute: Munaingo tumuluak (18-12) eta Otagain (18-33) eta Zaingo Ordekako (18-30) trikuharriak hain zuzen.

Zelatumen Ernioko gailurrerantzako igotza abantatzen da. Igoera burnizko gurutze mordoia jarraiki egiten da, antzin-antzinako erlijio-usadio baten ondorio dena; honek, mendia erromesaldi gune nagusi bihurtzen du, mendi sakratu honen birtute babesleeriko sekulako fedea sortuz.

Lurralde honetan biztanleen lekutzea erakusten duten lehenengo testigantzak Goi Paleolitikokoak dira. Garaiko hotzaldiek ehiztari-tribuak leizezuloetan biztatzera behartu



Etxeandia etxeko armarrria

zituzten. Hauetariko bat Aitzorrotz II (18-10) da. Kobazulo hau Metale Aroan artzaintzara emaniko joan-etorriko taldeek hilobi-panteoi gisara erabili zuten; baita Aintzulo koba ere (17-74).


Errezil etaroko historian ez da lege-nortasun guztiz independentea duela sartzen, baizik eta Aia, Beizama, Bidania eta Goiazekin batera Saiazgo Alkatetza Nagusia osatzen duen herri-multzogisara.

1563ko abenduaren 23an Saiazgo Alkatetza desegin egin zen eta Saiazgo Batura izenez bakarrik iraun zuen, Probintziako Biltzar Nagusi eta Partikularretan ordezkariarik izan zezan bost herrien baterako erakundea.

Udalerriko biztanlegunea ibar nagusiaren inguruan lekutzen da, mendi izakerako entitateak ere badaudelarik. Hiriguneak erai-



Etxeandia etxea.





San Esteban basiliza.

kuntzarik gehienak biltzen ditu. Beste eremu batzuek ere, ibarretik gertu bait daude, Lete, Artzailuz edo Ibarbiak esate baterako, erakuntza kopuru polita besarkatzen dute.

► **Lete**

Bidegoianeko mugan Errezil ibaiaren buruan lekutzen da. Gune honetako testigantzarik ikusgarriena San Miguel Goikoa (24-5) basiliza da, harlanduzko eraikuntza xumea. Fatxada nagusian, orain itxita dagoen arku zorrotzeko atea eta leiho konopial bat ditu, jatorriz etarokoa dela pentsarazten duten ezaugarriak izanik.

Inguruetan antzin-bideen zatiak ikus daitezke. Aitzarte aldera jaisten dena (24-6) ibaibideraino iristen da eta behar bada Errege Bide zaharraren ibilbide bera egiten du. Hau San Joseko gurutze-tokiaren parean barneratuko litzateke hirigunean (*10).

HIRIGUNEA

Herriko erdigunea ibarra zabalitzen hasten den guneaz baliatzen da eta Lete, Lezama eta Artzailuzekiko erdibidean lekutzen da.

Berriki zaharberritu den Udaletxea (*8), errepidearen beste aldean zutitzen da.

■ **San Martin Parroki-Eliza (*9)**

Errezilgo sail nagusia parroki-elizaren inguruan barreiatzen da, arkupea eta oinaldean dorrea duen eraikuntza ikusgarria.

Arku zorrotzeko hiru kapera dituen arkupeak elizarako sarrera osatzen du. Saloi oinplanoa eta nabe bakarra ditu. XVI. mendean egindako berrikuntza-lanetangangen euskarri diren horma-bular handiak eraiki ziren eta 1545ean Martin Mendiolaren eskutik dorrea eraikitzen da.

XVIII. mendean elizan berrirotik zabalakuntza lanei ekingo zaie, tenplua abside aldetik handituz. Portada berria ere urte

hauetan egin zen, harburuetako batean 1713ko data dauka. Barruko erretaulak Errenazimenduko obra bikainak dira.

■ Eliza ondoan plaza lekutzen da, probatoki gisara erabilia izateko harriztatua dagoena. Inguruan hainbat eraikuntza nagusi daude. Borondegia (*11) eta Etxeandiak (*6) familiako armariak gorde dituzte. Azkeneko honek gainera armarrria egurrezkoa du. Kantoia (*12) sarrerako idazkiaren arabera 1794ekoa da.

Herri honetako beste etxe aipagarri batzu, hilerrira eta Artzailuz auzo aldera doan bide ondoan dagoen Etxeberri (*7) eta Apaizetxea (*4) ditugu. Honen "garajeak", itxura errenazentista duten leiho eta zutabeak dituela, basiliza zahar bat dirudi: Plazatik apaizetxerainokotartean, tailaturiko buru bat ikus daiteke etxe baten fatxadan sartua (*5),



San Martin parroki-eliza.



Armendi baserria.



Etxeberritxo baserria.

► Artzailuz

Auzo hau Errezil ibaiaren erdiko eta beheko tartean zehar hedatzen da. Ibai ondotik aurrera egiten duen Errege Bide Zaharra, hirigunetik abantatzen dela, geografia-baldintzekin batera, duen hiri egituraketaren eragilerik nagusienetarikoa izan da.

Errege Bidearen ibilbideak auzoan dituen **testigantzarik** garrantzitsuenetara ailegatzeko balio du. Hilerriaren aurrekaldean (*3), Santo Kristoren basiliza lekutzen da, XIX. mendean eraikia. Hilerriaren eta San Antonio (*1) basilizaren arteko bidean harrizko gurutzez osaturiko bidegurutzea dago. Azkeneko gurutzea bi isurkitako eraiki-dura bitxi batek babesten du (*2).

Hirigunetik gertuko baserrien artean, auzo honi dagozkionak, Armendi (24-2) landa eraikuntzazko eredu bikaina, adreiluzko bilbadurak dituen eta Rekondo (18-8) oinetxe izandakoa ditugu.

Gune honetan aurrera eginda, ibarra zabalduta egiten da eta honenbestez, **base-riak** ikaragarri ugaltzen dira.

Landarrain (18-27) errota izan Zen eta oraindik ere makineria oso-osorik gordetzen du. Basa-jatorria duen zubiak, orain dela gutxi berritua, Agerre Bekoa baserri iristeko bide egiten du (18-25), XIX. mendean berritutako armarridun oinetxe zaharra dena.

Estalpe bitxi batean zehar Landarrain igaro ondoan, bideak Azpeiti aldera aurrera egiten du, Telleria (1826) parean berriz errepide nagusiarekin elkartzeko modua dagoelarik edota bestela, bide zaharretik jarraitu. Hemen San Miguel Bekoa (18-24) basiliza lekutzen da. Tamaina eta itxura apalekoa da. Eraikuntzaren oinarri den harlanduzko zokaloa eta barruan erretaula errenazentista bikaina nagusitzen dira.

Badirudi basiliza ondoko zubitxoak, bidean gerora hobetua izan Zen ubera baten berri ematen duela.

Ibarra dezente zabaltzen da San Esteban basilizarainoko bidean (18-19), hemen atzera estutuaz. Nekazaritzarako eskaintzen dituen baldintzak oso aproposak direla, bertan baserri mordoxka biltzeak adierazten digu: Torre-Berri (18-23), Loidi Goikoa (18-21) eta Loidi Azpikoa (18-20), Iraola Berri (18-76), Zurruntzolakoa

auzoa (17-75), errota bihurtutako burdinola zahar bat, Urteaga Zaharra (17-73) eta Arantzadizabal (17-72).

Bitxia da San Miguel eta San Esteban basilizen kokalekua, biak ere eremu lauraren mugan. Gainera, arkitektur-ezaugarri bere-tsuak dituzte.

► [barbia

Berrogeiren bat baserri osatutako auzo hau Artzailuz auzoaren parean lekutzen da, ibarreko lurretan barna. Hegoaldean Beizama eta Bidegoian ditu mugaide, Urrakiko mendi bazterrean zehar.

Ibaiondoko eremua Artzailuz auzoaren nahasten diren baserri inguratua dago. Bildain (18-22), Otume (18-18), Iturriaga (18-14) eta Ibarbi Barrena (18-15) dira aipagarrienak.

Mendi aldean Galarraga Goena (18-16) arku zorrotza duena, Galarraga Bitarte (18-17) eta Iturritia (24-1).

► Erdoizta

Errezilgo ifar aldea menditsuagoa da eta Aizarnara eta San Isidro basiliza aldera doan bide inguruan gorpuzten da.

San Isidro basilizak (18-11) eite borobila du, eta herrialdeko erlijio-arkitekturan eredu bakarra da. XIX. mende hasieran eraiki zen, Pedro J. Ugartemendiak, neoklasizismoaren ordezkari nagusiak, burututako egitasmoa jarraiki; kokagune honetatik inguru osoaren ikuspegi ederra hartzen da.

Barrenso (18-8) eta Etxeberritxo (18-9) baserriek Errezilgo lurretan Erdoizta inguruan eraikitako sail ordezkagarria osatzen dute.

Errepide ondoan, Erdoizta eta Aizarnarako bidegurutze ondoan Etumeta Benta lekutzen da (18-13), bi arkutako aturre polita duena.

Benta honen inguruan, Zestoakotik gertu, bi baserri ederrek merezi dute aipamenik: Antxiturbi (17-70) eta Zubitxo (17-71). Azken honek egurrezko aturre apala du.

Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundiak 1992. urtean argitaratutako
GIPUZKOAKO GIDALIBURU HISTORIKO MONUMENTALA

